

297. alea - 2024ko uztailea  
Debako herri aldizkaria

Zuhetza  
Muz. deba euskara  
elkartea

# Berriketan



AITZURI ABESBATZA

**“Harro gaude 30 urteotan  
egin dugun lanaz”**





## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak  
@adatsileak



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# Urlo

Ahokularitza  
Komunitateen  
kudeaketa  
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

## Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)

## ARENA BAR

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

# ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

## LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

Odontologoa  
MAITENA ARRIZABALAGA

Odontologoa  
NORA UNZETABARRENETXEA


# HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz 943 830 424 - 653 921 712

## Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
Tel: 685 703 843



## AURKIBIDEA



# BERRIKETAN 297

2024ko uztaila

**Azaleko irudiaren egilea:**  
Nerea Bedialauneta Alkorta



**11 ALBISTEAK**  
Herritar ugari hurbildu  
ziren Zaintza  
Ekosistemari buruzko  
aurkezpen ekitaldira



**14 ERREPORTAJEA**  
Aitzuri Abesbatzak  
30 urte bete ditu aurten;  
taldekideekin bildu gara  
urtemuga hizpide hartuta



**18 IRUDI GALERIA**  
Asteotako jarduerak  
lagatako irudiekin  
osatutako  
bilduma ikusgai



**21 ELKARRIZKETA**  
Ibil Bedi taldeko  
kideekin solasean  
Deban emango duten  
kontzertuaren harira



**26 KOPRAIXAK**  
Abuztuaren 2tik 7ra  
ospatuko dira  
Itziarko Kopraixak;  
egitaraua zuen eskura



**28 AGENDA**  
Datozen asteotan  
egingo diren jarduerak  
eta ekimenak jaso  
ditugu atal honetan

**Zuhatz** euskara  
elkartea

**Berriketan**

**ARGITARATZAILEA**  
Zuhatza Euskara Elkarte  
**HELBIDEA**  
Iifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)  
**TELEFONOAK**  
943 19 13 83 / 632 04 33 22  
**HEDABIDEAREN E-MAILA**  
berriketan@zuhatza.com  
**ELKARTEAREN E-MAILA**  
koordinatzailea@zuhatza.com  
**ERREDAKZIOA**  
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta  
eta Alex Turrillas  
**KOORDINATZAILEA**  
Izaro Aulestiarte

**PUBLIZITATEA**  
Joseba Escudero eta Alex Turrillas  
**LOGOTIPOAREN DISEINUA**  
Iñaki Elosua  
**MAKETAZIOA**  
Maku Oruezabal  
**TIRADA**  
1.400 ale  
**MAIZTASUNA**  
Hilabetekaria  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**LEGE GORDAILUA**  
SS/246/200  
ISSN: 2171-7656

### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## 'Berriketan' aldizkariaren hurrengo alea irailan

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren hasieran oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartean ere; hori dela eta, abuztuan ez dela hilabetekaria kaleratuko gogorazi nahi dizuegu. Hurrengo alea, paperezko edizioan, irailaren amaieran plazaratuko dugu, baina *berriketan.eus* webgunea elikatzen jarraituko dugu datozen egunotan.

Irailaren hasieran itzuliko gara lanera eta orduan izango dugu berriz ere elkarren berri, hitzordua jarrita baitugu, besteak beste, Euskal Jaian. Ordura arte, beraz, ondo izan eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahiago euskaraz!

### Zuhatza Berriketan

## Bakarra eta ordezkazina

Distantziak bereizten gaituen arren, maite zaitugu, Mikel, gizon maitagarria, eskuzabala eta ona izan zinelako.



Bizitzak probak jarri arren, maite zaitugu, Mikel, badakigulako elkarrekin gaudituko ditugula.

Gehiagotan elkar ikusiko ez dugun arren, maite zaitugu, Mikel, gure lagunik onena izan zinelako, beti hor zeundelako.

Maite zaitugu, Mikel, berezia zinelako, bakarra, ordezkazina.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, gure bizitzaren parte zarelako eta beti gure bihotzetan zaudelako.

Marian Larrañaga

**ITURLAN, S.L.**

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com

Kolegiatu zkia.: 20001123

**Amaia & Esnaola**  
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar  
943 20 72 17 | 660 42 28 08  
amaia@esnaolaodontologia.com

**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**Berriketan.eus**

parte hartu  
parte izan

Halal harategia  
Fruta-denda / Supermerkatua

**Razan**

943 574 710 / 688 749 337  
Sokagin, 2 behe. DEBA





JON AMUTXASTEGI

## Efimerotasuna

Urte bat baino gehiago pasatu da aitxixta hil zenetik. Duela gutxi arte nire barruan, leku ezkutuenean gorderik, bazen berriz ikusiko nuen esperantza txiki bat. Joaten utzi baino, gero arte batekin agurtu izan banu bezala. Agur esatea kosta egiten zait, betirako den ezer ez dagoela onartzea, dena aldatu egiten dela ametitzea, gauzei joaten uztea.

Agian nire kontua da. Oraindik gogoan ditut Madriletik Euskal Herrira itzuli nintzenean izan nituen buruhausteak. Handik "laster itzuliko naiz" batekin joan nintzen, uda ostean Madrileratu bueltatu eta denak berdin jarraituko balu bezala, bizi izan nuen urte hura argazki bat balitz bezala, betirako nire zain egongo zen esperantzarekin.

Nire gorputza ere aldatu da. Zimurrak eta ilea, bista eta bestondoak. Nire ardurak ere ez dira gaztetakoak. Lagunekin harremanak eraldatu egin dira, espero ez nituenak sortu, eta atzamarrak txirikordatuz zin egindako betiereko laguntasunak galdu ditut. Ez gara Peter Pan.

Kostata, baina azken urte honetan pelikulak pelikula direla ohartu naiz. Denak ez duela amaiera onik, baina filmetakoak baino istorio ederragoak ere badaudela. Edertasun, maitasun eta bizitza eternorik ez dagoela. Agian nire kontua da, baina hogeita sei urte bizi behar izan ditut ohartzeko efimerotasuna dela eternoa den gauza bakarra.

**"Agur esatea kosta egiten zait, betirako den ezer ez dagoela onartzea, dena aldatu egiten dela ametitzea, gauzei joaten uztea"**


 LIZ-ZK.: 3
 

**Taxi Alain Deba**

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)

**636 135 008**  
[alain@taxideba.eus](mailto:alain@taxideba.eus)


**MAIEDER** Eider Sampayo  
 horts klinika Maialen Linazasoro

Implanteak eta kirurgia Periodontzia · Endodontzia Estetika eta zuriketak Protesiak · Odontopediatria Azido hialuronikoa Aho-aurregi eta ATM alterazioak	<b>Zarautz</b> Kale Nagusia 9-1 943 13 32 69 722 81 56 60 <a href="mailto:dental@maieder.com">dental@maieder.com</a> <a href="http://www.maieder.com">www.maieder.com</a>
---	--

# Herri-bideak

JOXEMARI ALTZIBAR


**P**istak agertu ziren arte, mendiko herri-bideak baserriarren komunikabide nagusiak izan ziren. Bide horiek baserriek behar zuten oinarritzko azpiegitura osatzen zuten; zerbitzu, belardi eta baso-ustiapen guztietarako erabiltzen ziren eta, gainera, auzoak, herriak, eliza, merkatua... lotzen zituzten, harremanetarako ezinbesteko izanik. Baserrietan zeuden behar horiei erantzun nahian sortu zen, hain zuzen, bide horietatik igarotzeko eskubidea, eta eskubide hori hitzez adosten zen. Hartara, gorputz-bide edo andabide bezala ezagutu izan dira. Orain, ordea, herri-bide asko beste gizarte mota baten beharretara egokitu dituzte eta gaur egun mendizaleek, ibiltariek, korrikalariek, ehiztariek eta abarrek erabiltzen dituzte.

Bide horietan jende pilaketak izaten dira, eta portaera desegokiak sarritan: zikinkeria utzi, txakurrak aske eramanez, atazak irekita laga... Ondorioz, zenbait baserri-tarrek beren bizimoldearen aurkako eraso zuzen bezala hartzen dituzte horrelako jokabideak. Eta mendizaleek mota askotako oztupoak aurkitzen dituzte herri-bide horietan; itxiturak, mastinak libre baserri aurretik pasatzean, PR ibilbideetako markak ezabatuta eta abar.

Eremu pribatuak izan arren, bertatik ibiltzeko eskubidea dute mendizaleek eta hiritar guztiek, betiere mendiko abereak errespetatuz, bideetako ateak itxiz, gure txakurrak behar bezala zainduz, sortzen dugun zaborra geurekin etxera eramanez, eta ingurua eta natura errespetatuz.

Mendi-bideen erabilerak sor ditzakeen arazoak saihesteko, hainbat herritako udalek antzinako idazlanetan, testigantzetan, tradizioan, ohituretan eta dokumentuetan oinarritutako herri-bideen katalogoak egin dituzte. Debako Udalak 2016ko abenduaren 20an egin eta onartu zuen lehen eta bigarren mailako ibilbideen inbentarioa. Bertan agertzen da non dauden eta nondik nora doazen gaur egun Debako eta Itziarko herri-bideak. Eta herri-bideak bai... Baina mendi gailurretara igotzeko bideak? Horiek ez daude katalogatuta. Eta orduan? Bada, horretarako, 2015ean Eusko Legebiltzarrak onartutako legearen barnean (5/2015 legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa) honakoa ebatzen dute:

15. artikulua: "Jabeak eskubidea du bere edukitzapeko landa ixteko, baina ezin du eragotzi gizabanakoek



**"Eremu pribatuak izan arren, bertatik ibiltzeko eskubidea dute mendizaleek eta hiritar guztiek, betiere ingurua eta natura errespetatuz"**

bertatik igarotzea irabazirik gabeko erabilera dela eta, gizabanako horiek ez badute inongo ibilgailurik baliatzen. Norbaitek eskubide hori erabiltzen badu, landaketak errespetatu beharko ditu, eta, kalteak eraginez gero, kalte-ordaina eman beharko du".

Lege horren artikulua garbi adierazten dizkigu lur edo mendi eremuen jabeen eskubideak, baita mendizaleenak ere. Eta eskubide horrek ez duela preskribatzen ere esaten du.

Baserriarren eta mendizaleen artean hobeto elkar ulertzeko helburuz animatu naiz testu hau idaztera. Gizarte eredu berri honetan, gero eta gehiagotan eta modu ezberdinetan erabiltzen dira herri-bideak: turismoa, landa-turismoak eta abar. Guretzat, ordea, bide horiek mendiaz, paisaiatzeko edota naturaz gozatzeko dira. Nonbaiten irakurri dut bide hauek gure historia eta lurraldea interpretatzeko ondasun historikoaren elementu garrantzitsuak ere badirela, eta zaindu eta babestu gien behar ditugula.





ITZIAR ARANA

## Harizetik intxaurrondora; Ez da giro II

Konturatu orduko pasa da urtebete eta, iaz bezala, aurten ere uztaila narras hasi dugu... eguraldi grisa eta euskararen aurkako erasoak etenik gabe. Begirada zabaltzen baldin badugu ere, panorama ez da askoz hobea; indarkeria matxistaren biktimak ugaritzen ari dira eta, Palestinako eta Ukrainako gerrek, besteak beste, ez dute berehalako amaiera baketsurik begi-bistan.

Deban bertan ere, hor dugu etxeko atarian (Calbeton Zumardian) pixkanaka hazten doan Gernikako arbolaren kimua, eta hortik hurre orain dela gutxi Porrotx eta Marimotots pailazoen Zuhatzako Kolore Anitz Aisialdi Taldeari oparitutako intxaurrondo landatu berria, bakearen eta galera afektiboen ikur, hurrenez hurren. Galera guztiak dira mingarriak, dudarik gabe, baina hitzez deskribaezina da gerratik ihesi bonbardaketa baten erdian sentitzen den izua eta nahi gabe (hausnartutako erabaki baten ondorioz esan nahi dut) Debaraino iritsi eta gorpuzten den kontraesan bezalako betetako sentimendua: alde batetik, bizirik jarraitzearen lasaitasuna, eta, bestetik, iparririk gabeko etorkizun grisa.

Ez dakit zuei ere gertatzen zaizuen, baina ni azkenaldian aspaldiko kantu batekin nabil bueltaka: *"Solo le pido a Dios / que la guerra no me sea indiferente (...)"*. Sasoi gris hauetan, izan gaitezen eguzki printz; bakezale eta saminean bidelagun.

**"Galera guztiak dira mingarriak, dudarik gabe, baina hitzez deskribaezina da gerratik ihesi bonbardaketa baten erdian sentitzen den izua..."**



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

---

**ZERBITZUAK:**

* Fisioterapia - Osteopatia	* Podologia
* Gimnasia hipopresiboak	* Dietista

---

Lersundi, 14      943 19 24 42      sasoiiko@hotmail.com



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 **DEBA** (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



## ‘Baineruak’ eta bainulariak

Agian Debako hondartzan egindako argazki zaharrenetakoa da; XIX. mendearen amaieran edo XX. mendearen hasieran ateratakoa, ziurrenik. Irudiaren lehen planoan, ur ertzean jolasean dabiltzan haur batzuk ikusten ditugu. Bigarren planoan, bainuzaina (*bainerua*) ageri da, haur bati uretan sartzen edo uretatik irteten laguntzen. Eta, haien atzean, sokekin elkarri lotutako hesola batzuk daude; hondartzan hasi eta itsasoan barneratzen dira hesola horiek eta bainulariak seguruago senti zitezen erabiltzen ziren, sokei helduta ibiltzen baitziren.

Atzealdean, bainurako kasetak edo aldagelak (gurpildunak) daude. Idien laguntzarekin, bainulariak uretan sartzeko erabiltzen ziren. Eta, bainua hartu aurretik eta ondoren, aldagela gisa erabiltzen zituzten, bertan jantzi eta erantzeko. Urtaro jakin bateko ogibidea zen *baineru* edo bainuzainena, eta uda sasoiari jende askori ematen zion lana; igeri egiten ez zekiten haurrei eta helduei bainua hartzen laguntzen zieten. Emakumeek ere parte hartzen zuten udako lan horietan, arropak garbituz eta kasetak txukun mantenduz. Egaña *Urasandi*, Idiakez *Itxurri*, Urquiri *Cholet*, Etxeberria, Iriondo *Zesterokua* eta Beitia familiak, adibidez, Debako hondartzako bainuen historiara pasa dira.

Alex Turrillas Aranzeta



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
 E-mail: asketa@telefonica.net  
 www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
 KALITATEA  
 Empresa Registrada Nº 2/05/049  
 NIVEL 2



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



## Haur eta gaztetxoentzako herri bazkaria eta play-back lehiaketa, besteak beste, Umeen Egunean



Arg.: JOXERRA LARRAÑAGA

Ohiko osagaiak ez ezik, berritasunak ere egongo dira San Roke festen baitan abuztuaren 15ean ospatuko den Umeen Egunean. Antolatzaileek azaldu dutenez, adibidez, familia, haur eta gaztetxoentzako bazkari herrikoia izango da zumardiko karpan, 14:00etan; tiketak abuztuaren 1etik 9ra izango dira salgai turismo bulegoan, 2 euroan (postrea eta ura), eta bazkaria etxetik eramane beharko da.

Haurren danborrada arratsaldean egingo dute aurten (17:30ean). Uztailaren 22an izango da lehen entsegua, 19:00etan, Ifar kaleko Luzaro eskolan. Eta uztailaren 29an, eta abuztuaren 5ean eta 12an izango dira hurrengo saioak, toki eta ordu berean.

Bestalde, zortzi urtetik gorako haurrei zuzendutako play-back lehiaketa ere iragarri dute. Foruen Plazan egingo da, arratsaldean, eta umeek bakarka edo taldeka parte hartu ahal izango dute; izen-ematea abuztuaren 5ean amaitzen da ([debakoumeeneguna@gmail.com](mailto:debakoumeeneguna@gmail.com)).

Aldizkari honen edizioa ixtean, oraindik ere ez zegoen plazaratuta 2024ko San Roke festen egitarau osoa. Informazioa aurki izango da [berriketan.eus](http://berriketan.eus) atarian.



LUKAX DORRONSORO

## Mutrikura

*Ekainean eguzki bero?  
Uztailak lanbroa dakar gero.  
Abuztu uda-erdi denezkero,  
festak ohi dira bezero.*

San Pedroak joan berri zaizkigula, gainean ditugu Magdalenak Mutrikun, eta hasi zaizkigu Ondarru eta Debari eskaintza eta aldarri. Hirurok, auzo-herri garenez, zor diogu elkarri Arnoren babesean geure poz eta nekeak elkar-giroan ospatzera deitzea:

*Ondarru eta Debatik  
abiatu da jendea (bitan):  
Festetara,  
goazen Mutriku aldera!  
goazen Mutriku aldera!  
Magdalenak dira-ta!*

Eta horrela Santixoak, Sanrokeak, Andramaixak, San Martinak... Santomasak...


**Informatika JLC Elektronika**  
 Tresnera informatikoa      Osagai elektronikoak  
 Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA  
 Tel.: 943 19 17 83  
 Faxa: 943 19 18 36  
 Mugikorra: 686 939 601  
[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)


**atari**  
 INMOBILIARIA  
 943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)


**ieraenea**  
 eskolanda  
*"maite ditut nire/gure bazterrak"*  
 Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
 Telf: 913 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)


**marruecos**  
 viajes y tours  
 Neurrira egindako bidaiek Marokora  
**607 76 11 46**  
[www.viajesytoursmarruecos.com](http://www.viajesytoursmarruecos.com)



Mendizale bat Geoparkeko Bira egiten. GEOPARKEA

# Prest dago Geoparkea alderik alde zeharkatzen duen proposamen berria

Itsaslabarrak, mendiak eta interes kultural eta turistiko handiko herriak ezkutatzen dituzten bidezidorretan barrena, Euskal Kostaldeko Geoparkea oinez ezagutzeko aukera dakar Geoparkeko Birak. 54 kilometroko ibilbide zirkular bat da, hiru etapatan banatua; nork bere erritmora, zatika edo osorik egin daiteke zeharkaldia.

Euskal Kostaldeko Geoparkearen ezagutzan sakontzeko helburuarekin, Mutriku, Deba eta Zumaia lotzen dituen baliabide turistiko berri bat aurkeztu dute.

Azaldu dutenez, hiru etapatan banatutako 54 kilometroko zeharkaldiak lehendik dauden bidezidor eta bideetatik igarotzen den Geoparkearen berri izateko aukera eskaintzen du. "Kostaldeko GR ibilbideak arrakasta handia duenez, Geoparkeko Bira ibilbide hori luzatzeko eta lurraldearen

**"Etap guztietan garraio publikoa erabil daiteke, baita logistika eta ostatu azpiegitura egokia ere"**

barnealdea (Olatz, Lastur, Itziar) ezagutarazi ahal izateko apustua da", nabarmendu dute.

## Zailtasun ertaina

Geoparkeko Bira hiru eguneko ibilaldian osatu daiteke eta exijentzia edo zailtasun maila ertaina da, etapen luzeragatik batez ere. Zehaztu dutenez, ibilbidea nork bere erara diseina dezake; alegia, norberak aukeratu dezake non hasi eta non bukatu.

Proposatu dituzten hiru etapa horietako lehena Mutriku-Deba da; 16,6 kilometroko luzera du, eta 1.000 metrotik gorako desnibela. Sei ordu pasatxoan osa daiteke. "Etap flysch beltzean hasten da eta Arnoko artadia zeharkatzen du. Kostaldeko eta barnealdeko bistak eskaintzen ditu, euskal baserri tradizionalak osatutako bide bakar batean".

Deba-Zumaia da bigarren etapa, luzeena; 19,7 kilometroko ibilbideak 1.000 metro inguruko desnibela du eta zazpi orduan osa daiteke. "Deba ibaia gora, Historiaurreko Bailara zeharkatzen du, Lasturko ur-kanalarekin lotu arte. Zalantzarik gabe, biraren tarte politenetako bat da. Ohikoa ez den bidetik iritsiko gara Zumaia".

17,7 kilometroko Zumaia-Mutriku azken etapa, aldiz, itsasertzetik igarotzen da oso-osorik; 1.000 metroko desnibela du eta zazpi orduan osatzen da. "Lurraren historian barrena doan ibilbide bat da, flyscharen edertasunaz bere osotasunean gozatzea ahalbidetzen duena, Elgorriaga, Portutxiki eta antzeko bista ikusgarriekin".

## Garraio publikoa

Azpiratu dutenez, "etapa guztietan garraio publikoa erabil daiteke, baita logistika eta ostatu azpiegitura egokia ere, ibilbidean dauden establezimenduei esker".



# Debako Zaintza Ekosistema sortzeko urratsak ematen jarraitzen du udalak

Herritar ugari hurbildu ziren ekainaren 30ean Foruen Plazan egin zen aurkezpen ekitaldira eta, hiru taldetan banatuta, Debako zaintzaren egoerari buruz hausnartu zuten.



Debako Zaintza Ekosistema sortzeko lanean jarraitzen du Debako Udalak. Gogorarazi bezala, duela hilabete batzuk abiatu zuten prozesua; herriko eragile ezberdinez osaturiko diziplina anitzeko talde eragile bat sortu zuten, eta talde horrek egoeraren analisia egin du azken hilabeteotan. Bada, analisi kuantitatibo horren eta proiektuaren beraren berri emateko ekitaldia egin zen, hain justu, ekainaren 30ean.

Udal iturriek azaldu bezala, herritar ugari batu ziren Foruen Plazan egindako aurkezpena eta, hiru taldetan banatuta, zaintza egoerari buruzko hausnarketa egin zuten. "Gune bakoitzean alor ezberdin bat aztertu zen: prebentzioa, zaintza arinak eta zaintza behar handiak. Hausnarketak egin ostean, gune bakoitzean kokatutako kutxetan herritarrek beren ekarpenak eta proposamenak egin zituzten", gaineratu dute.

Udalak abian jarritako prozesuak "adinekoak eta pertsona zaintzaileak erdigunean jarriz, adineko pertsonen beharrei modu integrarean erantzutea" du xede nagusi. "Ekimen honen bidez, beraz, Debako Udalak adineko herritarren bizi-kalitatea hobetzea

du helburu, baina baita gizarte eta komunitate-sarea indartzea ere, adinekoen zaintza gizarte osoaren mesederako den erantzukizun partekatua dela erakutsiz", nabarmendu dute.

Aurkezpenean Alazne Txurruka alkateak eta Foru Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñak parte hartu zuten, besteren artean. Biek ala biek berretsi zuten jendaurrean Debako Zaintza Ekosistema lantzen jarraitzeko konpromisoa.

Era berean, alkateak eskerrak eman zizkien ekitaldira bertaratutakoei. "Zaintzen inguruko kezka nabarmena da Deban eta plazan elkartu garen pertsona kopurua ikustea nahikoa da horretaz jabetzeko. Beharrezkoa da zaintzen inguruan hausnartzea eta zaintzen eredia aldatzea. Helburu horrekin abiatu dugu prozesua, Deban zaintzaren egoera gertutik ezagutzeko, herritarren iritziak eta proposamenak jasotzeko, aurreanalisi horretatik abiatuta, adinekoek eta pertsona zaintzaileek eskura dituzten zerbitzuak eta euskarriak indartzeko, eta bide hori elkarlanean egingo dugu herritarrekin eta gainerako erakundeekin", azpimarratu zuen.

# Giro aparta, beste behin ere, Kolorez Blai udaleku irekietan



Uztailaren 1ean hasi ziren Debako Udalak eta Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeak elkarlanean antolatutako Kolorez Blai udalekuak, HH5etik LH6ra bitarteko haurrei zuzenduta.

Begiraleen esanetan, ordutik aspertzeko denborarik ez dute izangoizetan. "Hondartza, mendia, jolasak, lagunak, irriak, musika,

dantza, euskara... askotariko jarduerak egin ditugu eta talde giro bikaina sortu dugu denon artean".

Guztira 161 haurrek eman dute izena aurtengo deialdian: uztailaren 1etik 12ra egindako lehen txandan 77 ume ibili dira, eta hilaren 15etik 26ra bitartean egiten ari diren bigarren txandan, aldiz, 84. Bederatzi begirale daude taldean.

## Herriko mintzalagunek elkarrekin eman diote amaiera ikasturteari



Zuhatza elkarteak dinamizatutako egitasmoko taldeek uztailaren 3an eman zioten amaiera 2023-2024 ikasturteari. Hilabeteotan egindako lana biribiltzeko, talde ezberdinetan aritu diren zenbait kide Lubina elkartearen bildu ziren, mokadu bat egin eta tarte atsegin bat pasatzeko.

Iazko urrian hasi eta ekainera bitartean, asteroko hitzorduak egin dituzte mintzalagunek. Lau taldetan banatuta, bakoitza bere dinamika eta ordutegiarekin, guztira 25 bat herritar aritu dira mintzapraktika egiten ikasturte honetan. Uda ondoren elkarrekin batzen hasiko dira berriz bidelariak eta bidelagunak. Hau da, euskara ikasten ari diren eta euskaraz hitz egiten laguntzen dieten pertsonak.

## Gaztetxoek gogotik gozatu zuten Porrotx eta Marimotots pailazoen bisitarekin

Porrotx eta Marimotots pailazoen 350 lagun baino gehiago bildu zituzten uztailaren 4an Aldats pilotalekuan. *Zorionak Marimotots* ikuskizuna aurkeztu zuten bertan, Gure Giro kultur programazioaren baitan antolatutako emanaldian.

Haurrek ongi etorri beroa egin zieten pailazoei, eta une dibertigarriak eta samurrak izan ziren pilotalekuan. Ondoren, kalejira

egin zuten Plaza Zaharreraino, Zuhatza-Kolore Anitzen abestiaren bideo kliperako irudiak grabatzeko.

Beste herri batzuetan egin bezala, pailazoak opariarekin etorri ziren Debara; hala, dolua lantzen duen ikuskizuna amaitzean, intxaurrondo bat eman zieten aisialdi taldekoei. Ifar kaleko igogailuaren ondoan landatu dute, dagoeneko gure artean ez dauden herritarren oroimenez.




Ikusi eguneko argazki guztiak ondorengo QR kodea irakurri.





# Paula de Luisaren eta Eva Kareagaren 'Susterrak' erakusketa ikusgai elizako klaustroan

Pinturak, eskulturak, grabatuak eta argazkiak biltzen ditu abuztuaren 21era arte klaustroan ikusgai izango den erakusketak. Aurrez ere elkarrekin lan egindakoak dira bi artista bisual bizkaitarrak, baina hauxe da elkarlanean prestatu eta aurkeztu duten lehen proiektu eta erakusketa bateratua, *Susterrak*.



Debako Udalak, Arte Eskola Bizirik kolektiboarekin elkarlanean, artista bisual berrien lana sustatzeko helburua duen lehiaketa antolatu du aurten ere, eta haren emaitza da uztailean eta abuztuaren Santa Maria elizako klaustroan ikusgai dagoen erakusketa.

Proiektua *Susterrak* izenburupean aurkeztu dute Paula de Luisa eta Eva Kareaga algortarrek. Lehenengoaren obra eskulturaren, argazkigintzan eta pinturan oinarritzen da batik bat, eta Kareagak eskultura, grabatua eta argazkia uztartzen ditu gehienbat, bere sormen-lanetan material naturalak eta eraikuntza materialak nahasiz.

Txikitako lagunak diren arren, hau da elkarlanean prestatu duten lehen erakusketa, eta "oso pozik" daude. "Gainera, espazioa oso polita da, eta horrek gehiago motibatua gaitu, erronka bat izan da", azaldu du Kareagak.

De Luisak laburbildu bezala, bi artistek dute ezaugarri komun bat. "Eraikuntza-paisaiak nola baldintzatzen du paisaia natural eta organikoa? Eta alderantziz? Nola eragiten diote elkarri?". Bada, partekatzen duten gogoeta horri tiraka sortutako artelanak aurkituko ditu bisitariak klaustroan: "Eskultura hauek, adibidez, forma

arkitektonikoetan inspiratuta daude, eta arkitektura hori paisaia nola integratzen den irudikatzen dute".

## "Espazioarekin jolastuz"

Beren lanetako batzuk eta Debarako propio sortu dituzten obra batzuk bildu dituzte erakusketan, eta bien artean egindako piezarik ere bada tartean. Azaldu dutenez, klaustroaren ezaugarriak aintzat hartuz eta "espazioarekin jolastuz" prestatu dute guztia; argi naturalak, adibidez, erabat baldintzatzen du erakusketa eta obrak ikusteko esperientzia.

Harria bera ere esanguratsua da kasu honetan. "Bion lana asko oinarritzen da harrian, elementu natural bezala eta eraikuntza-elementu gisa. Klaustroan bi harri daude, kareharria eta hareharria, eta gure obran ere presente daude biak. Beraz, zentzu horretan erlazio zuzena dute espazioarekin", dio Kareagak.

*Susterrak* erakusketa abuztuaren 21era arte egongo da zabalik. Honako ordutegia izango du uztailean: asteartetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara, eta igandeetan eta jaiegunetan 17:00etatik 20:00etara.



# Aitzuri Abesbatza hiru hamarkada kantuan

Azkar esaten bada ere, 30 urte bete ditu Aitzuri ahots mistoen abesbatzak. Hiru hamarkada igaro dira taldea 1994an sortu zenetik eta oraindik ere bizi-bizi jarraitzen du. Xabier Carrillo zuzendariaren hitzetan, konturatu gabe pasa da denbora eta, orain arte bezala, etorkizunean ere musikaren xarmaz gozaten segi nahi dute. "Harro gaude urte hauetan guztietan egin dugun lanaz".



Aitzuri Abesbatzaren 30. urteurreneko kontzertua klaustroan.

**D**uela hiru hamarkada hasi zuen ibilbidea Aitzuri Abesbatzak. Dena den, taldea ez zen ezerezetik sortu. "1987an eraturako Alos Torrea eta 1992an sortutako Gure Ametsa abesbatzek, biak ere Amaia Zinkunegik zuzendutakoak, bat egin ondoren jaio zen Aitzuri. Talde batean zein bestean jende gutxi ibiltzen ginen eta, arrazoi horregatik, indarrak batzea erabaki genuen", gogoratu du Jose Mari Iparragirre abesbatzako kideak.

Kantatzeko zaletasuna partekatzen zuten 50 bat gizon-emakumek hasi zuten bidea eta, harrezkero, aldaketak izan dira taldean. Hogeita hamar urteotan, adibidez, sei zuzendariren (Amaia Zinkunegi, Ainhoa Sorazu, Fefe Urain, Alaitz Urkia, Ander Simal eta Xabier Carrillo) gidaritzapean aritu da abesbatza eta korutik makina bat kide pasa dira. Baina, funtsean, 1994an sortu zeneko esentzia bera mantentzen du oraindik ere Aitzurik; alegia, kantagintzaz gozatzeko eta musika bazter guztietara zabaltzeko helburuarekin jarraitzen du.

Ahots mota ezberdineko (sopranoa eta kontraltoa emakumezkoetan, eta tenorra eta baxua gizonezkoetan) 30 kide inguru dabilta uneotan taldean. Partaide kopurua handiagoa zen 1994ko hastapenetan, baina Xabier Carrillo zuzendariaren iritziz, garrantzitsuena ez da unean uneko kopurua, "koruko kideen gaitasuna



Aitzuri Abesbatza, artxiboko irudian. ARRATESAN MARTIN

eta kalitatea baizik". Hori esatearekin batera, abesbatzak urte hauetan guztiotan ikasketa prozesu "handia" izan duela azpimarratu du. "Orain hasieran baino jende gutxiago izango gara, beharbada. Baina bidean ikasitako guztiaren ondorioz, lehengo 50 lagun haien pareko sonoritatea daukagu, edo handiagoa, agian".

Taldeko kideak bat datoz egungo mailara iristeko gakoetako bat urteotako zuzendariak izan direla esatean, baina, aldi berean, lan tekniko "handia" egin behar izan dutela ere aipatu dute. Zentzu horretan, "ezinbestekoa" izan da formakuntza; besteak beste, ahots teknika lantzeko hainbat ikastaro egin dituzte eta, azaldu dutenez, kantu klaseek ere "sekulako pisua" izan dute taldearen bilakaeran.

### Europar barrena

Aitzurikoek gustuko dituzte erronkak eta Euskal Herriko hainbat areto eta jaialdi esanguratsutan abestu izan dute. Halaber, kantu txapelketa ezberdinetan ere parte hartu izan dute urteotan; 2004an, adibidez, lehen saria eskuratu zuten Griñon-en (Madril) egin zen lehiaketan. Bestalde, Euskal Herriko edota Espainiako beste talde batzuekin urtero trukeak antolatzen saiatzen dira eta, horri esker, beste abesbatza batzuk ezagutzeko eta han-hemenka ibiltzeko "aitzakia paregabea" izan dutela aitortu dute musikariek.

Euskal Herriko eta Espainiako mugetatik haratago, Europar barrena ere ibili izan dira debarrak. 1999an, esate baterako, bira bat egin zuten Belgikan, Brusela, Brujas edota Gante bezalako hirietan abestuz. Baina, ziurrenik, Aitzurik jaso duen gonbidapenik garrantzitsuenetako bat Milango Duomo

## Besteak beste, Milango Duomo katedralean abesteko aukera izan zuen abesbatzak 2001ean

Argazki zaharren  
bilduma:





2019ko Santa Ageda bezperako ospakizuna.

## Uztailaren 7an klaustroan eman zuten kontzertua 30. urteurrena herritarrekin ospatzeko aprobetxatu zuten

katedralean abesteko proposamena izango da; 2001ean, Giuseppe Verdi konpositore italiarraren heriotzaren mendeurrena zela eta, haren *Requiem*-a bertan interpretatzeko aukera izan zuten, beste hainbat abesbatza esanguratsurekin batera.

Aitzuri Abesbatzak, gainera, aktiboki parte hartzen du herriko kultur jardunean eta urtean antolatzen diren hainbat ekitaldi berezitan, hala nola Santa Ageda bezperako ospakizunetan eta maiatzaren bukaeran Debatik Itziarrera egiten den erromesaldian. Eta, nola ez, tradizioari eutsiz, laster ospatuko diren San Roke jaietan ere parte hartuko du; ohi bezala, abuztuaren 14an, festak hasten

## Aitzurikoen iritziz, taldean edonork kantatu dezake: "Gogoia, musikarekiko zaletasuna eta taldearekiko konpromisoa behar dira, besterik ez"

diren egunean, Hilarion Eslava konpositore nafarraren Salbea abestuko dute Santa Maria elizan iluntzean egiten den elizkizun berezian.

### Urteurrena ospatzen

Urtero uda hasieran ematen duten kontzertua uztailaren 7an egin dute aurten. Emanaldi berezia izan zen, zalantzarik gabe, 30. urteurrena herritarrekin batera ospatzeko baliatu baitzuten hitzordua. Lepo bete zen Santa Maria elizako klaustroa eta han elkartu ziren ikus-entzuleen gozamenerako, hamahiru piezaz osaturiko erreperitorio atsegina eskaini zuten. Amaia Zipitria pianistaren laguntzarekin, Rossini-ren *Kyrie* abestia, Mancini-ren *Moon river* eta Juan Carlos Perezen *Lau teilatu* interpretatu zituzten, besteak beste.

Urteurrenoko ospakizunak ez dira bukatu, ordea, Sevillara bidaiatzeko asmoa dutela aurreratu baitute koruko kideek. "Gure artean sekulako giroa daukagu, eta horren adibide da irteera hau ere. Asteburu pasa joango gara, baina, tamalez, taldekide guztiak ezingo dira gurekin etorri", dio Idoia Garitaonandia taldeko kideak, penatuta. Irteera emanaldi bat egiteko baliatuko dutela azaldu dute. "Berez, ez goaz kontzertu bat ematera, baina ziur aski horretarako ere aprobetxatuko dugu txangoa", zehaztu du irribarre artean Txema Txurruka taldekideak.

### Gonbidapen irekia

Irailaren erdialdean ekingo diote ikasturte berriari eta, iragarri dutenez, orduan hasiko dira erreperitorio berria lantzen. Gogora ekarri dute hori izango dela unerik aproposena taldearekin bat egin nahi dutenentzat.



## "Taldekideak gero eta zaharragoak dira eta jendea behar dugu, abesbatzari jarraipena eman ahal izateko eta Aitzurik bizirik segiko duela ziurtatzeko"

Kantatzeko zaletasuna duen edonori egin diote gonbidapena. "Musika gustuko duten herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu taldera. Urteekin, jendeak abesteari lagatzen dio eta taldekide berriak behar izaten dira. Denok izango zarete, hortaz, ongi etorriak! Nahikoa da gutako batengana hurbildu eta taldean kantatu nahi duzuela esatea. Bestela, etorri gure kontzertuetako edo entseguetako batera". Aitzurikoen iritziz, taldean edonork kantatu dezake, baita partitura bat irakurtzen ez dakitenek ere. "Gogoia, musikarekiko zaletasuna eta taldearekiko konpromisoa behar dira, besterik ez. Ez da lan handia, baina honek guztiak ahalegin pixka bat ere exijitzen du", aipatu du zuzendariak.

### Entseguak astean bitan

Abesbatzako kideek astearteetan eta asteazkenetan entseatzen dute musika eskolan; 21:00etatik 22:15era. Eta guztien artean "kimika berezia eta giro paregabea" dutela nabarmendu dute. Guztiak bat datoz, hain zuzen, "lagun talde ederra, familia baten parekoa" osatu dutela esaterakoan.

Etorkizunera begira, ohartarazi dute ez dutela kantarien soka eteterik nahi, eta azpimarratu dute belaunaldi berriek aurrekoen lekukoa hartzea komeni dela, abesbatzak beste hainbeste urtean bizirik jarrai dezan. "Taldekideak gero eta zaharragoak dira eta jendea behar dugu, abesbatzari jarraipena eman ahal izateko eta Aitzurik bizirik segiko duela ziurtatzeko. Herrian umeen eta gazteen taldeak sortzeko ahalegina egitea berebizikoa dela iruditzen zaigu. Harrobia sortu behar dugu. Inor ez badago gure lekukoa hartzeko prest, Aitzuri desagertu egingo da".



Abesbatzak klaustroan emandako lehen kontzertua, 1995ean.



Aitzurikoak Milanen, 2001ean.



2016ko Santa Zeziliako ospakizunetan parte hartzen.

# Egitarau bete-betea uda sasoian, beste behin ere

Makina bat kultur eta aisialdi ekintza egin dira gurean azken asteotan, aurten ere nabarmen hazi baita jardueren kopurua uda partean. Urteroko ospakizunez gain, antzerki emanaldiak, musika kontzertuak, dantza ikastaroak, erakusketak, irteerak, hitzaldiak... izan dira aukeran. Azken asteek lagatako hainbat irudi bildu ditugu tarte honetan, udalerriko eskaintza aberatsaren eta anitzaren erakusgarri. Datozen asteetan ere izango da, noski, zer gozatua.



San Juan bezperako sua eta dantzak Foruen Plazan.



San Juan Eguna Santa Katalinan. Arg.: ANABELPELDE



Getari Etxegarairen bakarriketa, 'Barre Giro' zikloaren baitan.



LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna Itziarren.



San Pedro bezperako ospakizuna Plaza Zaharrean.





Salsa, bachata eta txa-txa-txa dantza ikastaroa Kultur Elkarte.



Alex Turrillas Aranzetaren bisita gidatua Debako elizan.



Porrotxen eta Marimotsen intxaurronda landatzeko ekitaldia.



300 pertsona batu ziren Paco Etxeberria auzitegi medikuaren hitzaldian.



Arbil Elkarte Sozialak sanferminetara egindako irteera.



Begiradak literatur errezitaldi eta irudien proiektzioa.



## Adin txikikoek erabilgarri dituzte udalerriko saltokietako telefonoak



Altxa Burua Deba-Itziar taldeak *Gurea erabil dezakezu* kanpaina abiatu du. Debalai merkatarien elkartearekin eta udalarekin elkarlanean abiatutako ekimenak adin goiztiarretan gailu mugikorren erabilera murriztea eta haurren autonomia areagotzea du helburu. Eta, horri esker, haurrek eta nerabeek kanpainarekin bat egin duten saltokietako telefonoak erabili ahal izango dituzte, edozein larrialdiren aurrean, behar duten deria egiteko.

Kanpainaren bultzatzaileek diotenez, erakusleihoetan jarri dituzten pegatinei esker, "erraz" identifika daitezke beren telefonoak

erabilgarri jarri dituzten saltokiak. Eta erabiltzaileek arau batzuk bete beharko dituztela ere zehaztu dute: "Saltokietan errespetuz sartu beharko dira, beraien beharra azaldu, eta eskerrak eman ezagurtu".

Debako eta Itziarko 30 merkataritza eta ostalaritza establezimenduk baino gehiagok eskaintzen dute beren telefonoa erabiltzeko aukera. Dena den, sarea zabaltzen jarraitu nahi dute, eta ekimenean parte hartzeko aukera dago oraindik ere. Kanpainarekin bat egin nahi dutenek mezua idatzi beharko dute [altxaburudabaitziar@gmail.com](mailto:altxaburudabaitziar@gmail.com) helbide elektronikora.

## Uztailaren 19ko eta 26ko hitzorduekin agurtuko dute Iturri Ondoan egitasmoa



Bi emanaldi besterik ez dira falta Iturri Ondoan egitasmoa amaitzeko. Uztailaren 5ean eman zioten hasiera egitarauari eta, uztailaren 12an Begiradak ikuskizunaz gozatu ondoren, uztailaren 19an izango da hurrengo saioa (22:00etan); iragarri dutenez, Olaia Inziartek kontzertu akustikoa eskainiko du Plaza Zaharreko oholtzan.

Hilaren 26an agurtuko dute aurtengo egitasmoa. Iñurri elkartearen eskutik datorren *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saio musikatua izango da, 22:00etan. Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka eta Mainer Arregi bertsolariak dira minbizia modu batera edo bestera jasatea tokatu zaienei laguntzeko eta gizartearen sentsibilizatzeko helburua duen ikuskizuneko protagonistak.

## Bueltan da Debako Musika Bandaren udako dantzaldia

Uztailaren 27an udako dantzaldia eskainiko du Debako Musika Bandak. 23:00etatik aurrera Foruen Plazan elkartzen direnek "askotariko abesti ezagunetz gozatzeko aukera" izango dutela iragarri dute antolatzaileek.

Musikazale guztiei egin diete emanaldira gerturatzeko gonbidapena eta, bide batez, uztailaren 6an Queen taldearen omenezko kontzertura hurbildu ziren guztien "berotasuna" ere eskertu nahi izan dute. "Sekulakoa izan zen. Eskerririk asko gurekin karpan izan zineten guztioi".



# “Ibil Bedik beti du zuzenean diskotik harago doan zerbait emateko gaitasuna, edo intentzioa behintzat”

AMETS ARANGUREN ETA IBAI OSINAGA • Musikariak



Ibil Bedi talde nafarrak itxiko du aurtengo Gure Gioren egitaraua, abuztuaren 2an. Zumardiko karpan izango da kontzertua, 22:00etan, Zuhatza-Kolore Anitzen ekimenez, eta doakoa izango da sarrera. Taldekideek *Goldea* azken diskoa Deban aurkezteko gogoz daudela aipatu dute *Berriketan*-i eskainitako elkarrizketan.

**I**bil Bedi taldea 2018an sortu zuten Ibai Osinagak, Amets Arangurenek, Areta Senosiainek, Eder Escalerak eta Javier Larrañetak. Boskote nafarrak hiru disko atera ditu urteotan, azkena iaz (*Goldea*), eta herriz herriko aurkezpen biran Deban egingo du geldialdia abuztuan. Kontzertua emateko gogotsu daudela diote Aranguren eta Osinaga taldekideek, eta bertaratzeko deia egin diete herritarrei, bai jarraitzaileei, bai oraindik ere taldea ezagutzen ez dutenei: "Musikazaleak badira eta egiteko besterik ez badute, etor daitezela, eman diezagutela aukera bat".

**2022ko ekainean kontzertua eman zenuten Debako Kultur Elkartean. Nola ondu da Ibil Bediren proiektua bi urteotan?**

**Ibai Osinaga:** Egia da denbora azkar pasatzen dela eta askotan ez garela bizitakoaren kontziente izaten, horretan pentsatzen jartzen garen arte. Deban izan ginenetik disko berri bat atera eta kontzertu asko eman ditugu, baina antzeko modu batean lan egiten jarraitzen dugu. Gustura eta pozik gaude egindako bidearekin eta etengabe ikasten ari gara.

**Duela urtebete pasa kaleratu zenuten hirugarren diskoa: 'Goldea'. Pozik emaitzarekin? Zer nolako harrera izan du zuen azken lanak?**

**Amets Aranguren:** Oso-osozko pozik gaude *Goldea*-k



Arg.: MAKOKI FAKTORIA



**“Azken diskoa kontzertura eramateko modurik zintzoena eta zentzuzkoena da oraingo zuzenekoak”**

**“Epe luzerako planik edo helbururik ez dugu inoiz izan, baina badugu gauza berriak egiteko gogoak”**

izan duen harrerarekin. Kontziente ginen egindako lan guztiaz, inoiz baino serioago hartu baitugu hirugarren disko honen eratze prozesua, baina beti da eskertzekoa jendearen aldetik ere erantzun polita jasotzea. Eta beti esaten dena da, baina diskoaren harrerak puskaz gainditu zituen gure espektatibak.

**Aurreko bi lanekin alderatuta, azken diskoan estilo edo soinu ezberdinak aurki daitezke, ezta?**

**I.O.:** Uste dut bide bat segitu dugula, gure "soinua" bilatzen edo, eta gaur egun ditugun baliabideekin disko hau atera da. Horrek ez du esan nahi hurrengo bide honetatik joanen denik, ezta kontrakoa ere. Baliteke produkzioa izatea gehien aldatu dena aurreko diskoekin alderatuta, baina muinean kantuak oso modu antzekoan sortu ditugu.

**Amets, presentzia handiagoa duzu orain abeslari gisa eta gitarrarekin ere aritzen zara batzuetan; lehen, ordea, teklatuan eta saxoarekin ikusten zintugun batik bat. Nolatan aldaketa hau?**

**A.A.:** Nahiz eta arlo akademikoko ikasketa guztiak saxoarekin egin, ez dut sekula harekiko atxikimendu berezirik sentitu eta, hortaz, goi mailako ikasketak bukatzearekin batera, instrumentua alde batera utzi nuen. Kantatzeari dagokionean, beti gustatu izan zait abestea, instrumenturik adierazkorrena iruditzen zait.

Normalean, letrak idazten dituenak kantatzen ditu letra horiek Ibil Bedin, nahiz eta badiren nik idatzi eta Ibaik kantatzen dituen kantu batzuk aurreko diskoetan. Zentzu horretan, uste dut "aldaketa" hau horri lotua dagoela erabat; nik idatzitako letrak nik kantatzen ditut, eta Ibaik idatzitakoak Ibaik kantatzen ditu. Horrek ez du esan nahi hemendik aurrera horrela izanen denik beti. **Ibai, zure kasuan, ordea, zure ahotsaren presentzia bigarren plano batera pasa dela esan genezake. Gustura gitarrarekin?**

**I.O.:** Egia esan, bai. Oso gustura nago eta asko ikasi eta gozatu dut *Goldea*-ren sortze-grabaketa prozesuan. Beti kantatu izan dut gitarrarekin eta orain, pixkanaka, gitarra jotzen ikasten ari naizela sentitzen dut.

**Abeslariari rol protagonista eman ohi zaie maiz. Erraza izan al da zuretzat rol hori aldatzea edo partekatzea? Aldaketa naturala izan al da, edo apropos egin duzue?**

**I.O.:** Ametsek aipatu bezala, guztiz naturala izan da. Apropos egindakoa kontzertuetan erabiltzen dugun osaera izan da; hor bai, taldekide guztiak "berdintzearen" aldeko ideia genuen, eta hein batean lortu dugula uste dugu.

**Zuzeneko ikuskizunari ere garrantzia berezia eman diozue bira honetan (argiztapena, pedal eta efektu ezberdinak...). Zertan aldatu dira zuen kontzertuak?**

**A.A.:** Aldaketarik handiena da disko berri baten





kontzertua dela; ez dut uste aurreko diskotik hona gure zuzenekoaren ulerkerak asko aldatu denik, baina agian gu pixka bat helduagoak gara. Egia da Mikel Perez gure argi teknikariak diseinatutako argiak berriak direla eta horrek asko jantzen duela zuzenekoa (nahiz eta ezin diren beti baliatu), baina azken diskoa kontzertura eramateko modurik zintzoena eta zentzuzkoena da oraingo zuzenekoa, ez du beste deus berezirik.

#### **Publiko berri batengana iristeko baliagarriak izan al dira aldaketa horiek?**

**I.O.:** Zaila da hori aztertzea eta ondorioak ateratzea. Esanen nuke ez dugula publiko berri batengana iristeko gauza berezirik egin, hori ez dugu inoiz buruan izan, baina izan daiteke, bai. Beharbada kontzertua ikusi eta gozatu duenak lagunei gomendatu die, eta horrek ekarri du publiko "berri" bat.

#### **Abuztuaren 2an Deban ariko zarete. Zer aurkituko dute zumardira bertaratzen direnek?**

**A.A.:** Esanen nuke Ibil Bedik beti duela zuzenean diskotik harago doan zerbaiteko emateko gaitasuna, edo intentzioa behintzat. Iruditzen zait gure azken lana dela lanik aberatsena eta diskoan topa daitezkeen ertzak zuzenekora eramaten saiatzen gara.

#### **Diskoak argitaratzeko orduan, autoekoizpenaren aldeko apustua egin duzue beti. Zergatik?**

**A.A.:** Prozesu guztia zure esku egotea beldurgarria da batzuetan, baina gauzak ongi ateratzen direnean oso pozgarria da, eta horrek ematen dizu aurrera jarraitzeko gogoia. Uste dugu hori dela sortzeko bidea.

#### **Posible al da musikaren industriak agintzen duen horretatik aparte aritzea?**

**A.A.:** Edozein sistemaren barruan bezalaxe, puntu bateraino bai, baina ez zentzu guztietan. Taldearen erabaki politikoak batez ere hor daude: noraino, non, zergatik eta zertarako sartu edo distantzia mantendu. Makrojaialdi batean jotzeari ezezkoa emanen diogu, baina gure kantak Spotify-n daude. Zure gain zenbaterainoko kontraesanak hartzeko prest zauden jakin behar da. Eta, horrez gain, momentuaren arabera ere alda daitezkeela jakin.

#### **Eta etorkizunari begira jarrita, zeintzuk dira hurrengo urteetarako erronkak?**

**I.O.:** Epe luzerako planik edo helbururik ez dugu inoiz izan, baina badugu gauza berriak egiteko gogoia (taldekide bakoitzak ezberdin bizi du, noski). Oraindik geure burua talde gisa zaintzen ikasten ari gara eta eztabaida eta hausnarketa asko egiten ditugu taldean. Zaila da hain bizitza desberdina daramaten bost kideen taldeari beti norabide bera ematea. Oraingoan, astebete hartu dugu abuztuan elkarrekin egoteko, ez da gutxi!

## Parisko Paraolinpiar Jokoetan parte hartzeko txarteletako bat eskuratu du Amagoia Arrietak




World Boccia-k, kirol horren erakunde gorenak, Parisko Paraolinpiar Jokoetan parte hartzeko azken txartelak lortu dituzten kirolarien zerrenda argitaratu du berriki. Erakundeak 80 eskaera jaso ditu eta, horiek guztiak "zorrotz" berrikusi ondoren, 24 hautatu dituzte abuztuaren 28tik irailaren 8ra bitartean Frantziako hiriburuan egingo den nazioarteko hitzorduan parte hartzeko. Horien artean da Deban bizi den Amagoia Arrieta ere; BAT Basque Team-eko kirolaria, zehazki, BC1 kategorian lehiatzeko hautatu dute.

Dordoka Klubeko jokalaria, hain zuzen ere, azken urteotan goi mailan lortutako kirol emaitza bikainei esker eskuratu du berriki "hain berezia" den hitzorduan parte hartzeko txartela. Gaur-gaurkoz, seigarren da mundu mailako sailkapenean. Iaz, gainera, Europako Txapelketa ere irabazi zuen eta denboraldi honetan txapeladunorde izan da Zagrebeko Challengerrean.

Paraolinpiar Joko batzuetan parte hartuko duen lehen aldia izanda, "pozez gainezka" azaldu da Arrieta. "Pozik nago Paraolinpiar Jokoetan parte hartzea nire bizitzako ilusioetako bat izan delako beti".

## Emaitza onez betetako denboraldia osatu du Jon Osa igerilari debarrak



Amaitu berri den denboraldian fin aritu da Jon Osa igerilari debarra. Eibar Igerixan Kirol Klubaren izenean jarduten du Osak eta, taldeko arduradunek nabarmendu dutenez, "oso maila ona" erakutsi du absolutu mailan.

Azaldu dutenez, Espainiako 111. Open Trials Txapelketan lortu ditu denboraldiko emaitzarik azpimarragarrienak. Bizkar estiloko 100 metroko proban, esaterako, final nagusira iritsi zen. Lehia oso estua egon zen azken metroetara arte eta, gogor saiatu bazen ere, bi ehunenengatik podiumean sartzeko aukerarik gabe geratu zen debarra; 55,66 segundoko markarekin, laugarren amaitu zuen.

Bizkar estiloko 50 metroko proban ere bikain moldatu zen. 25,79 segundoko denborarekin, bosgarren sailkatu zen final nagusian; zehazki, txapelketako errekor berria ezarri zuen Ulises Juan Saraviak baino 73 ehunen gehiago behar izan zituen helmugaratzeko. Estilo libreko 100 metrokoan, berriz, kontsolazio txandako finalean sartzeko lortu zuen; 50,51 segundoko denborarekin, 11. postuan amaitu zuen txapelketa.

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

**AVA ASESORIA  
ARIN**

M. Belen Arrue Lizarralde  
Abokatua

**Zestoa**  
Gesalaga kalea, 22 behea  
943 89 70 99

**Zumaia**  
P. Etxezarreta, 15 behea  
943 11 71 55

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza  
Enpresak / Autonomoak  
Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa  
**asesoriarin@asesoriarin.com**

# Berritasunekin dator abuztuaren 3an egingo den Itziar Trail proba

Aurten zazpigarrenez lehiatuko den mendi lasterketaren bueltan egin beharreko guztiak jada prest dituzte antolatzaileek. Iragarri dutenez, abuztuaren 1ean itxiko da izen-ematea eta oraingo honetan zenbait berritasun izango ditu probak. Besteak beste, txipdun dortsalak erabiliko dituzte eta sariak ere "potoloagoak" izango dira.

Kopraixen egitarauaren barruan, abuztuaren 3an jokatu da VII. Itziar Trail proba. 16:00etan hasiko da aurtengo hitzordua eta, antolatzaileek iragarri dutenez, zeinbat berritasun izango ditu. Horietatik nabarmenena txipdun dortsalen erabilera izango dela zehaztu du Txema Ponce lasterketaren talde antolatzaileko arduradunak: "Urtero zerbait hobetzen saiatzen gara eta, beste jauzi kualitatibo bat eman nahian, txipdun dortsalak erabiltzea erabaki dugu".

Gainera, dortsal horiek pertsonalizatzeko aukera egongo dela gaineratu du Poncek. "Korrikalariek beren izena jartzeko aukera izango dute. Hala, mendian dauden zaleek izen eta guzti animatu ahal izango dituzte parte hartzaileak".

Ibilbideari dagokionean, ez da aldaketarik izango aurreko edizioekin konparatuz gero: antzeko ibilbidea (13,9 kilometroko luzera eta ia 1.000 metroko desnibel metatua) osatu beharko dute korrikalariek. "Aurten ere Zabalsoro frontoiaren parean hasi eta amaituko da proba; iaz egindako aldaketa horrek sekulako arrakasta izan zuen eta, beraz, aurten errepikatu egingo dugu".

## Herriguneari bira

Bestalde, ibilbidearen hasierako metroetan moldaketa txiki bat egin dutela azaldu du Poncek. "Probari bizitasun eta ikusgarritasun handiagoa eman nahian, korrikalariek herriguneari bira bat emango diote lehendabizi".

Berritasunen artean, gainera, sariak ere "potoloagoak" izango direla zehaztu du antolakuntza taldeko kideak.



Ohi bezala, lehenengo hiru gizon-emakumeek jasoko dute saria, baita helmugaratzen diren lehen itziartarrek eta lehen kilometroa azkarren gurutzatzen dutenek ere. "Hori bai, azken sari hori irabazi ahal izateko nahitaezkoa izango da proba bukatzea".

## 150 lagunera mugatua

Parte hartzaile kopurua 150 lagunera mugatuta dago aurten ere; beraz, izena emateko interesa duten korrikalari guztiei "garaiz" ibiltzeko aholkatu diete. "Parte hartu nahi dutenek [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) atarira jo beharko dute; abuztuaren 1a da horretarako azken eguna. Egunean bertan ezingo da izenik eman".

Exijentzia maila ertaina duen lasterketa bat dela kontuan harturik, bertan parte hartzea gonbidatu dituzte mendiko lasterkari guztiak, baita goi mailakoak ere. "Herri mailako proba baten izaera galdu gabe, gure nahia da goi mailan dabiltzan kirolarientzat ere erakargarria izatea".



# Jaiek sei eguneko egitaraua izango dute Itziarren

laz bezalaxe, Jubilatuen Egunarekin hasi eta Gazte Egunarekin amaituko dira aurtengo Kopraixak Itziarren. Kontzeju etxean egiten ari diren lanen eraginez, egitaraua moldatu behar izan dute oraingoan, baina dagoeneko prest dago guztia auzolanean antolatutako festei ekiteko. Ekimenez betetako sei egun izango dira orotara. Hemen duzue ikusgai egitaraua:

## Abuztuak 2, ostirala

### Jubilatuen Eguna

**12:30 Meza nagusia** Itziarko elizan.

**Ondoren, herriko dantzarien emanaldia.**

**14:00 Jubilatuen bazkaria** Salegi jatetxean.

**Ondoren, herriko bertsolarien emanaldia eta trikitaliak.**

**21:00 Bertso afaria** Donibane Elkartean.

## Abuztuak 3, larunbata

**10:30 Umeen pilota partidak** Zabalsoro frontoian.

**16:00 VII. Itziar Trail** mendi lasterketa.

**16:15 Haurren VII. Itziar Trail.**

**19:00 JOSELONTXO'S** txaranga, Burugorri ostatutik abiatuta.

**19:30 Txupinazoa** plazan. Marixiri ongietorria, danborrada eta buruhandiak.

**23:30 Erromeria BERANDUEGI** taldearekin.

**\*OHARRA:** Autobus zerbitzua egongo da Debatik.

## Abuztuak 4, igandea

**08:00 Sokamuturra.**

**11:30 Meza nagusia** Itziarko elizan.

**12:00 Txakolin dastaketa** plazan. Ekoizleak: Flysch eta Erlete Goikoa.

**13:00 Harri-jasotze erakustaldia**

Udane Ostolazaren eskutik, plazan.

**18:00 Bikoteen arteko XIX. Dantza solte txapelketa,** Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitalariekin, plazan.

**Ondoren, sokamuturra.**

**22:30 Kontzertua** plazan:

**NIKO ETXART ETA HAPA-HAPA.**





## Abuztuak 5, astelehena Helduen Eguna

**11:30 Meza nagusia** Itziarko elizan.

**11:30 JAN DA ERAN** txaranga,  
herriko kaleetan zehar.

**12:00 Sagardo dastaketa Iñaki Apalategi eta  
Agin Laburu** bertsolariek alaiturik, Kalebarrean.

**14:30 Herri bazkaria** Zabalsoro frontoian.

**18:00 Helduen arteko jolasak, dantza eta  
aureskua.**

**Ondoren, sokamuturra.**

**23:30 ITZAL** taldea plazan.

**00:30 Play-back lehiaketa** plazan. \*Nahi duen orok  
parte hartu ahal izango du (izena emateko azken  
eguna abuztuaren 4a da).

## Abuztuak 6, asteartea Umeen Eguna

**10:30 Umeentzako puzgarriak** frontoi  
zaharrean.

**11:00 Meza nagusia** Salbatore basilizan.

**11:30 Salva Martinez dultzaineroari  
omenaldia eta kalejira.**

**12:30 Zezen-tailerra.**

**Ondoren, pottokak.**

**14:00 Umeen bazkaria** Bikain jatetxean.

**17:00 Haurrentzako jolasak.**

**Jarraian, euskal dantzak, sokamuturra** (16  
urtetik gorakoentzat) eta buruhandiak.

**20:00 Ogitarteko jana** plazan.

**21:00 Erromeria GAUARGI taldearekin** plazan.

**22:00 Suzko zezena** Bikain jatetxetik plazara.

**Ondoren, erromeria GAUARGI taldearekin** plazan.



## Abuztuak 7, asteazkena Gazteen Eguna

**11:00 Bizikleta lasterketa** Kalebarreantik abiatuta.

**12:00 Gazteen arteko jolasak** kalez kale.

**Ondoren, sokamuturra.**

**14:30 Paella txapelketa** Zabalsoro frontoian.

**17:30 Gazteen arteko jolasak eta aureskua.**

**Ondoren, sokamuturra.**

**19:30 USTEKABE** elektrotxaranga.

**23:00 Kontzertua: HAUKE!**

**01:30 DJ ELEPUNTO.**

**Ondoren, TEKNO GAUA.**



# Uztaila / Abuztua / Iraila

## UZT. 19 (OSTIRALA)

### JAZZEZ BLAI

19:00 Trezz. Kultur Elkarte.  
21:30 Jazz kontzertua.  
Ondargain taberna.

### ITURRI ONDOAN

22:00 Olaia Inziarte.  
Plaza Zaharra.

## UZT. 20 (LARUNBATA)

### JAZZEZ BLAI

20:00 Roberto Nieva Quartet.  
Kultur Elkarte.  
22:30 The Megadeth  
Project. Kultur Elkarte.

## UZT. 21 (IGANDEA)

### GAZTETXOEN XAKE TXAPELKETA

10:00 16 urtetik  
beherakoentzat.  
Aldats pilotalekua.

### JAZZEZ BLAI

13:00 Xahu. Kultur Elkarte.  
19:00 Tana Santana Quintet.  
Kultur Elkarte.

## UZT. 24 (ASTEAZKENA)

### MAREA GORA

19:00 Hitzaldia Aita Mari-ko  
kideen eskutik. Kultur Elkarte.

### ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Itsaso eta Martina.  
Gaztetxea.

## UZT. 26 (OSTIRALA)

### ITURRI ONDOAN

22:00 Bertso saioa.  
Plaza Zaharra.

## UZT. 27 (LARUNBATA)

### BINILO PINTXADA

12:30 Bermut sesioa. Kultur  
Elkarte.  
19:00 Arratsaldeko sesioa.  
Kultur Elkarte.

### FLYSCH ORGANO JAIALDIA

20:00 Debako eliza.

### DANTZALDIA

23:00 Debako Musika  
Banda. Foruen Plaza.

## UZT. 31 (ASTEAZKENA)

### ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Bidenabar. Gaztetxea.

## ABU. 2-7

### ITZIARKO KOPRAIXAK

Egitarau osoa ale honetakoa  
26-27 orrialdeetan.

## ABU. 2 (OSTIRALA)

### KONTZERTUA

20:00 Organo kontzertua.  
Eliza.

22:00 Ibil Bedi. Zumardiko  
karpa.

## ABU. 8 (OSTEGUNA)

### KONTZERTUA

20:00 Iñaki Salvador. Eliza.

### ARTE ERAKUSKETA

#### 'Susterrak'

#### Abuztuaren 21era arte

Asteartetik larunbatera  
(17:00-19:00), eta igande eta  
jaiegunetan (17:00-20:00)  
ikusgai. Elizako klaustroa.

### IRTEFERA GIDATUAK

#### Debanatura

Informazio guztia:  
[labur.eus/debanatura2024](http://labur.eus/debanatura2024)

#### Geoparkea

Informazio guztia:  
[geoparkea.eus](http://geoparkea.eus)

### CARITASEN TONBOIA

#### Abuztuaren 2tik aurrera txartel guztiak saldu arte

12:00-22:30 Sagarna dendaren  
lokalean egunero zabalik  
(abuztuak 5-9 soilik arratsaldez).

## ABU. 14-18

### SAN ROKE JAIK

Egitarau osoa:  
[www.berriketan.eus](http://www.berriketan.eus)

## ABU. 22 (OSTEGUNA)

### KONTZERTUA

20:00 'Amalur' filmaren  
proiekzio musikatua. Eliza.

## ABU. 29 (OSTEGUNA)

### KONTZERTUA

20:00 Aitor Garitano eta  
Amaia Zipitria. Eliza.

## IRA. 2 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## IRA. 4-7

### XVII. ANIMADEBA

Animaziozko Zinema Jaialdia.

## IRA. 14 (LARUNBATA)

### 55. KALE MARGO LEHIAKETA

Haitz Haundiren eskutik.

## IRA. 16 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## IRA. 20 (OSTIRALA)

### KULTUREKIN

20:00 'Ninini' (Antton Telleria).  
Kultur Elkarte.

## IRA. 28 (LARUNBATA)

### EUSKAL JAIA

Egun osoko egitaraua.



### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

#### ZALDUEGI

Uztailak 22, 23, 24, 25 / Abuztuak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22

#### BURGOA

Uztailak 26, 27, 28 / Abuztuak 5, 6, 7, 8, 23, 24, 25

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.  
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

### DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA 667 33 88 90

#### Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA

Uztailak 20 eta 27 / Abuztuak 17 eta 24

ZALDUEGI

Abuztuak 3, 10 eta 31



## Jarrai gaitzazu!



[berriketan.eus](http://berriketan.eus)

Zuhatza Euskara Elkartea

### HURRENGO HITZORDUAK



[berriketan.eus/agenda](http://berriketan.eus/agenda)

### Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Correos	943 19 17 99
Debako Udala	943 19 28 40	Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24
Itziariko Auzo Udala	943 19 92 55	Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Itziariko Botikina	687 75 67 21
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Gurutze Gorria	943 19 10 32
Kiroldegia	943 19 22 62	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22
Euskotren	944 33 33 33	Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Lurraldebus	900 30 03 40	Eibarko Ospitalea	943 44 90 00

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA **HO EOI** ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK:  
egun bat eskolan +  
lan pertsonala  
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN  
gela desplazatuak

Matrikula:  
Irailaren 2tik 17ra

On-line  
**IKASGUNA**  
plataformaren bitartez



**DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS**



Informazio gehiago:  
Otaola hiribidea 29 EIBAR  
[eoieibarheo@gmail.com](mailto:eoieibarheo@gmail.com)  
943899275



[eoieibarheo](http://eoieibarheo.com)

[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)



**Uzuri**  
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92



**Deba**  
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa

[info@debaklinika.com](mailto:info@debaklinika.com)  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia


\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

**BA AL ZENEKIEN...**

**...Deba eta Mutriku arteko zubiak bere garaian zati altxagarri bat izan zuela?**

Bi udalerrien arteko zubiak 1866an inauguratu zuten. Donostia eta Bilbo kostaldetik komunikatzeko eraiki zen azken bide zatiak izan zen, eta XIX. mende erdialdeko Gipuzkoako arkitekturako eraikin adierazgarrienetarikoa bat da. Zubi altxagarria izan zen hasiera batean; alegia, itsasontzien trafikoa ahalbidetzeko, zubiaren zati bat igo egiten zen (egitura metalikoa zuen, bi partetan banatua). Ikatz-garraioa desagertu zenean, dena den, geldiarazi egin zuten zubi zati altxagarri hura eta urte batzuk beranduago, 1951n, desmuntatu egin zuten.

Bitxikeri gisa, bestalde, zubiaren hegoaldeko petrilean, eskuin aldeko ertzetik hasita hirugarren arkuaren parean, horman giltzatuta dagoen burdin uztaiak ibaiaren ibilgu nagusia zehazten du, baita Debaren eta Mutrikuren arteko banalerroa edo muga ere.



Iturria: [www.deba.eus](http://www.deba.eus) eta Patxi Aldabal detreuren 'El puente de Deba' artikulua (Deba aldizkaria, 49. zenbakia).


**SUDOKUA | Zailtasuna: Zaila**

		6		3			1	
		9			2	6	8	
		8		7				
1					7			4
5				4			2	
						7		8
3					2			6
		1	9					4

8	7	1	9	5	6	1	7	8
6	9	8	1	7	2	5	4	3
1	7	5	3	8	4	2	9	6
8	3	7	5	6	1	4	2	9
9	2	1	8	4	3	7	6	5
4	5	6	7	9	2	3	8	1
5	6	3	4	7	9	8	1	2
4	8	9	2	1	5	6	3	4
2	1	4	6	3	8	9	5	7

**LABIRINTOA | Zailtasuna: Erdibidekoa**

Sarrera bat, hamaika bide, irteera bakarra. Lagunduko al diguzu topatzen?




**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
 20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
 Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
 www.sagarmina.com

**k**  
**kutxabank**



**SUKIA**  
 Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
 Tel.: 943 192 386  
 Deba (Gipuzkoa)

**Mikel**  
**ITURGINTZA**

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,  
 20820 Deba

T. 943 191 774  
 M. 699 975 206  
 info@mikeliturgintza.eus

**ALBIZU**  
 HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
 943 19 14 47  
 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
 Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
 943 192 057  
 20820 DEBA

*Calbeton*

JATETXEA

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
 arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
 Tlfnoa.: 943 191 970  
 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ENGLISH**  
**SQUARE**

SCHOOL  
 OF ENGLISH

**2024/25 ikasturteko**  
**matrikulazioa**  
**zabalik**

Sokagin kalea 12, DEBA  
 648 268 206  
 info@english-square.net

**IGARZA**  
 TABERNA

Ostolaza, 5  
 DEBA  
 Tel.: 943 191 197

**ITXAS GAIN**  
 Taberna  
 ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan*  
*Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza - Tel.: 943 192 576  
 20820 DEBA



**ME ENDAÑETA**  
 muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien  
 erakusketa izugarria  
 3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina  
 T.: 943 19 91 00  
 F.: 943 19 91 01  
 ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com  
 www.mueblesendaneta.com

**AUKERA**  
 INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
 Aukerarik onena!

943 12 13 95

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



NI NORRA  
EUSKARA  
HARA

ondo pasatu,  
baina ez ezazue  
euskarara  
oporretara bidali!

Zuhertza  
Muz. deba

euskara  
elkartea